

ALBAOLA

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

363 zb.
www.getxo.eus

>> 2022ko Urtarrila



Nabarmen^{tze}koak

- > 2022ko EuskarAbentura espediziorako izenematea zabalik
- > 70 neska eta mutil baino gehiago Perkusio eta Paintball tailerretan
- > "R1pB1z1tzaS2" taldeak irabazi du Gurot lehiaketa



70 neska eta mutil baino gehiago Perkusio eta Paintball tailerretan

COVID 19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko 2021ean antolatutako *Getxo Ekinez* programaren barruan haur eta gazteentzako jarduerak abenduan egindako Perkusio eta Paintball tailerrekin itxi ziren. Lehenengoan, hotz handiarekin baina oso animatuta, 24 lagunek hartu zuten parte, 12 laguneko bi taldetan banatuta, Algortako San Nikolas plazan. Bigarrena Zornotzan izan zen, 53 neraberen partaidetzarekin. Tailer horiek, 2021ean, aipatutako programaren esparruan egindako Tirolina, Paddle Surf, Zirkoa eta Graffiti tailerrekin batera egin dira.

BEKAK SARIAK

* **Arte plastikoaren eta ikusmen-arten, arte dramatikoaren, musikaren eta dantzaren modalitateetan beka**, Foru Aldundiak deituta, ikasturte bateko iraupena duten proiekturako (2022ko irailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era). Zenbatekoak, onuradunen adina eta gainerako baldintzak ezagutzeko: <https://labur.eus/LvxMQ>. Eskabideak aurkezteko epea: urtarrilaren 20tik otsailaren 24ra.

* **La Caixa Fundazioaren 100 beka atzerrian graduondoko ikasketak egiteko**. Espainiar edo portugaldar nazionalitatea, unibertsitateko titulazioa (2013 eta 2022 bitartean Espainian edo Portugalen lortutakoa) eta helmugako herrialdeko B2 titulua edo balioidea izatea eskatzen da. Bekaren barruan sartzen dira: joan-etorriko txartela, matrikula, 1.100€ material akademikoa erosteko, 500€, edo 250€ edo 1.400€ hilean edo antzekoa helmugako herrialdearen arabera, eta orientazio-ikastaroa, mediku-asegurua eta istripu-asegurua. Helmugak: goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (EEES), Ipar Amerika (AEB eta Kanada) eta Asia-Pazifikoa eskualdea (Australia, Hego Korea, India, Japonia, Singapur eta Txina). Eskabideak aurkezteko epea: otsailaren 2ra arte. Informazioa: <https://labur.eus/sQosI>

* **Gazteentzako kontakizun laburreko UNED literatura-saria**, UNEDek deituta, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleentzat edo balioideentzat, gehienez 18 urte beteak izanda originalak ematen diren egunean. Lehenengo saria 800€ izango da eta bigarrena 500€. Lanak entregatzeko epea: martxoaren 1era arte. Oinarriak: <https://labur.eus/OUWRq>

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Urtarrila

Hilak 15, larunbata: IRTEERA: BIRTUALA
Hilak 18, asteartea: EKINTZA: ELURRA ARTIFIZIALA
Hilak 21, ostirala: TXAPELKETA: FUTBOLIN
Hilak 26, asteazkena: SUKALDARITZA: AZENARIOZKO BIZKOTZOA
Hilak 29, larunbata: IRTEERA: ONGRAVITY

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Urtarrila

Hilak 14 eta 28, ostiralak: PROIEKTUA: IBILBIDE FEMINISTA (BELDUR BARIK)
Hilak 15, larunbata: MASTER CHEF: PANCAKES
Hilak 19, asteazkena: JOLASA: FUTBOLIN
Hilak 21, ostirala: MASTER CHEF: SANDWICH
Hilak 22, larunbata: JOLASA: LETS SING
Hilak 25, asteartea: JOLASA: PING PONG



2022ko EuskarAbentura espediziorako izenematea zabalik

Datorren martxoaren 4ra arte zabalik egongo da 2022ko EuskarAbentura espedizioan parte hartzeko hautagaitza aurkezteko epea, 2005ean edo 2006an jaio diren Euskal Herriko eta diasporako gazte euskaldunei zuzenduta. 130 gaztek, uztailaren 1etik 31ra, Euskal Herria zeharkatuko dute oinez, euskara hutsean, eta oraingo edizioan euskaldunen eta itsasoaren arteko harremana landuko dute, Elkano

Fundazioarekin elkarlanean. Aurreko bi urteotan, osasun krisiak eraginda, EuskarAbentura elkarteak ezin izan du espedizio ibiltaria antolatu, eta beharretara eta murriztapenetara egokitu behar izan du ekimena. 2022ko uztailaren 130 gaztek osatutako taldeak Euskal Herria zeharkatuko du berriro, Mauletik Getxora, betiere momentuan indarrean dauden neurriek ahalbidetzen badute.

Aurrekoetan bezala, Espedizioa abentura bat bizitzeko gogoia duten gazte euskaldunen bila dabil. Horiek minutu bateko aurkezpen bideoa eta banakako proiektu bat aurkeztu beharko dituzte, biak euskaraz eta elkarteak proposatutako gai eta formatua aukeratuta (Informazio gehiago www.euskarabentura.eus helbidean). Proiektuak Eusko Ikaskuntzak eta PuntuEus Fundazioak ebaluatuko dituzte, eta apirilaren 24an argitaratuko da 130 gazte parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda. Espedizio taldeko kideak hautatzeko proiektuaren balorazioa, jatorria, generoa eta motibazioa hartuko dira kontuan.

Gaiak

Aurten, hautagaitza bidali nahi duten gazteek banakako proiektua sortzeko hurrengo hiru gai dituzte aukeran: *Gure aisiaren espazioa*, gaur egungo hezkuntza zentroetako jolastokien ezaugarriak eta bertan ematen diren dinamikei buruz hausnartzeko; *Moda azkarra*, arropa eta jantzien kontsumo ereduaren inguruan hausnartzeko; eta *Zer ginen, zer gara*, zer izango gara, soilik historiari ikasiz eraikiko dugulako etorkizuna. Proposatutako gai eta formatuekin gazteen hausnarketa eta sormena martxan jarri nahi ditu elkarteak.

Abenturaz jositako hilabetea Uztailako hilabetean zehar, gazteek Euskal Herria oinez zeharkatzeaz gain euskal kultura, geografia, hizkuntza eta gizartea ondo ezagutzeko aukera izango dute, askotariko bisita, tailer, hitzaldi edota espedizioa bisitatuko duten gonbidatuen eskutik.

Izen-emate kanpainari hasiera emateko aukeratutako Al-baola Itsas Kultur Faktoriak agerian uzten duen bezala, hurrengo espedizioaren gai nagusietako bat itsasoa izango da, gure bizimoduan duen eragina, Euskal Herriak horrekin daukan harremana... eta horrek historian zehar izan duen bilakaera aztertzeri gonbidatuko du. 2022an Lehen Mundu biraren 500 urteak beteko dira eta horrek historiari begiratzeko moduei buruz eta errelato historikoez hausnartzeko aukera emango die gazteei eta etorkizuna iraganetik ikasitakoarekin irudikatze-

ko ere. Horretarako, EuskarAbentura Elkarteak Elkano Fundazioarekin elkarlanean arituko da, gazteen izen-emate proiektuaren hirugarren gaia diseinatuz eta baita espedizioan landuko diren hainbat ekintza antolatzeko ere.

EuskarAbentura Espedizioaren helburu nagusia da euskara gazteen bizitzaren erdigunera eramatea eta, horrekin batera, gazte euskaldunen sare indartsu bat ehuntzea, gaur egun euskarak indartzeko behar dituen arloak lantzea, belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.



“R1pB1z1tzaS2” taldeak irabazi du Gurot lehiaketa

Getxoko “R1pB1z1tzaS2” taldea izan zen Gurot galdera-erantzunen lehiaketako Bizkaiko finalaren irabazlea, joan den abenduan Bilboko Azkuna Zentroan. Alkarbidek, Bizkaiko udal eta mankomunitateetako Euskara zerbitzuek (Getxokoa barne) koordinatzeko mahaiak abian jarritako ekimenean 12 eta 17 urte bitarteko hiru gaztek osatutako hainbat taldek hartu zuten parte. Irabazleek hiru ordenagailu eramangarri jaso zituzten. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Xabier Etxebarria, Unax Lafont eta Aratz Moral irabazleak, Irantzu Uriarte Udaleko Euskara zinegotziarekin batera.